



Beasaingo Udala

Beasainen, bi mila eta hemezortziko martxoaren hemeretzian

BILDURIK

Alde batetik, BEASAINGO UDALA Aitor Aldasoro Iturbe jaunak ordezkatuta, Beasaingo Udalaren Alkate-lehendakaria, Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21. artikulua.

Bestetik, BEASAINGO GOIZERESI TXISTULARI ELKARTEA (IFZ: G-75058255), Iban Irazustabarrena Dorronsoro jn. (NA 72480474E) Goizeresi Txistulari elkartearen lehendakariak ordezkatuta, 2016ko urtarilaren 23ko batzar orokorrean hartutako erabakiaren arabera.

AURREKINAK

I. Beasaingo Goizeresi Txistulari Elkarteak, Beasaingo udal txistularien testigantza jaso eta haiek ematen zutena, edo Beasaingo Udalak behar duen zerbitzua emateko konpromisoa hartzen du.

II. Beasaingo Goizeresi Txistulari Elkartea Udal Musika Eskolako txistu ikasleekin hornitzen da eta aurrerantzean ere, horrela izateko konpromisoa hartzen du.

III. Beasaingo udalak Beasaingo Goizeresi Txistulari Elkartearekin hitzarmena egiten du urte osoko txistulari zerbitzua herriari eskaintzeko.

BALDINTZAK

LEHENA.- Beasaingo Goizeresi Txistulari Elkarteak 2018. urtean 40 irteeraren zerbitzua antolatzeko konpromisoa hartzen du.

1. Urteko irteerak 22 eta Kantujirakoekin beste 4 irteera.
2. Beasaingo Jaietan 14 irteera.
3. Udazken Kulturalean barne, Txistularien alardearen antolaketa.

BIGARRENA.- Beasaingo Udalak jarduera horiek antolatzen honela laguntzea onartzen du.

1. Urteko irteerengatik Beasaingo Udalak **6.138,16 €** emango dio, hilero zati bat ordainduz.
2. Beasaingo Udalak Jaietako laguntzarengatik **800 €** emango dio.
3. Txistularien alardea antolatzeko Beasaingo Udalak **3.467,4 €** emango dio.

Udalak ematen duen diru-laguntza bateragarria izango da helburu berdinetarako elkarteak jasotzen dituen beste laguntzekin. Jasoz gero, ezagutu bezain pronto, Udalari jakinaraziko dio eta horrek hitzarmena berrikustea ekarriko du.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, BEASAINGO GOIZERESI TXISTULARI ELKARTEAK egiaztatu beharko du ordaindu beharreko zergak, gizarte-segurantzakoak barne, egunean dituela

HIRUGARRENA.- Beasaingo Goizeresi Txistulari Elkarteak bere partaidetza beharrezkoa den Udalaren ekimenetan lagunduko du Kultur Mahaian parte hartuz. Baldintza hau betetzeko, Udalak konpromisoa hartzen du eskaera gutxienez hilabete bat aurretik egingo duela.

LAUGARRENA.- Beasaingo Goizeresi Txistulari Elkarteari dagokio hitzarmendutako jardueri beharrezkoa den publizitatea egitea eta Beasaingo Udalaren laguntza (eta logotipoa) aipatzea beraiek antolatutako jardueri buruz egiten dituzten prentsarako ohar guztietan. Era berean, leku duin eta ikusgarrian aipatu beharko dira Beasaingo Udalaren laguntza, kartel, aldizkari, esku-egitarau, e. a., motatako zabalkunde-bitartekoak erabiltzen direnean.

BOSGARRENA.- Hizkuntz Politikako irizpideak jarraituz, idatziz sortzen diren material guztietan (kartel, diptiko, eskuliburu, apunte etab.) euskarari lehentasuna emango zaio eta materialen zirriborroak inprimategira eraman aurretik Udaletxera ekarriko dira testuen hizkuntz egokitasuna eta proportzioen zuzentasuna ziurtatzeko. Aurkezpenetan eta antzekoetan ere euskarak lehentasuna izango du.

SEIGARRENA.- Beasaingo Goizeresi Txistulari Elkarteak, publizitate bidez finantzatuko dituen diptiko edo beste edozein inprimakiren kasuan, dendariak euskarazko publizitatea eros dezaten ahaleginduko da eta, bestela, publizitatea ele bietara jasotzeko ahalegina egiteko konpromisoa hartzen du.

ZAZPIGARRENA.- Udalak hizkuntzari dagozkion arlo guztietarako bere laguntza eta lankidetzak eskainiko ditu.

ZORTZIGARRENA.- Beasaingo Udalak beharrezkoak diren Udal zerbitzuak eskaintzen jarraituko du, esandako jarduerak ongi burutuko direla ziurtatzeko eta Kultura Batzordeak beren antolaketa gainbegiratu ahal izango du.

BEDERATZIGARRENA.- Beasaingo Udalak Beasaingo Goizeresi Txistulari Elkarteai emandako ekarpen ekonomikoa justifikatu egin behako du. Horretarako, Udalaren esku utzi beharreko dokumentazioa honakoa izango da:

- Fakturak edo eskuratutako dokumentuak, ahal bada originalak egindako gastuaren egiaztagarri.
- Jardueraren azalpen memoria. Udalak emandako fitxa beteko du.

2



Beasaingo Udala

HAMARGARRENA.- Hitzarmen hau betetzeari dagokion guztirako, Beasaingo Goizeresi Txistulari Elkarteak, Alkatetzak horretarako jartzen duen edo dituen pertsona edo pertsonekin izango ditu zuzeneko harremanak.

HAMAIKAGARRENA.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna babesteko klausula. Elkarteek berdintasuneko irizpideak (Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta hau aldatzen duen otsailaren 16ko 3/2012 Legea) kontuan hartuko dituzte bai elkartearen barruan bai eta sustatzen dituzten proposamenak gauzatzeko garaian ere.

HAMABIGARRENA.- Datu pertsonalak babesteko klausula.

- A. 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) ezarritakoa betez, alegia, Datu Pertsonalak Babestekoan, alde bakoitzak erasandakoen baimen informatua lortzeko ardura izango du, hain zuzen ere, hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean beharrezkoak diren beren datu pertsonalen tratamendurako. Era berean, alde bakoitzak hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean erabilitako datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatzeko ardura izango du.
- B. Elkarteak Beasaingo Udalarari datu pertsonalen lagapena eginez gero, uneoro, beren datu pertsonalak lagatzeko erasandakoen baimen informatua duela bermatu beharko du.
- C. Alde bakoitzak egin litzakeen indarrean dagoen datuak babesteko araudi honen ez-betetzeetatik letozkeen ardurak bere gain hartuko ditu.

HAMAHIRUGARRENA.- Aurreko edozein baldintza behar bezala ez betetzeak hitzarmen hau berrikustea ekarriko du.

HAMALAUGARRENA.- BEASAINGO GOIZERESI TXISTULARI ELKARTEAK (IFZ: G-75058255) baimena ematen dio espresuki BEASAINGO UDALARI, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentutik eskura dezan, hitzarmen honetan aipatzen den ORDAINDU BEHARREKO ZERGAK EGUNEAN IZATEAREN baldintza betetzen duela egiaztatzen duen agiria:



BAI



EZ

Eta esandako guztiarekin ados egonik, bildutakoek dokumentu hau urte baterako sinatzen dute bikoizturik, goibururen aipatutako data eta lekuan.



